

BEASAINGO UDALA

Dirulaguntza deia: BEASAINGO UDALERRIKO SALTOKIETAKO ETA JARDUERETAKO ERROTULUETAN, IRUDI KORPORATIBOETAN ETA WEB ORRIETAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO OINARRIAK

Argitara ematen da deialdiaren laburpena dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Dirulaguntzen Datutegi Nazionalean kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

1. Dirulaguntzaren xedea.

Deialdi honen xedea jarduera publikitzeko asmoz errotuluetan, irudi korporatiboan eta web orrietan (aurretiko ordainketarik gabe) euskara erabiltzen duten Beasaingo merkatariei eta jardueri 2025 urterako dirulaguntzak emateko prozedura arautzea da, euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin.

2. Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak

a) Dirulaguntza guztiak jaso ahal izateko bete beharreko baldintzak:

- Jarduera Beasaingo udalerriko lokaletan burutzea.
- Testua euskaraz zuzen idatzita egongo da. Horretarako komenigarria da aldeztu aurretik Hizkuntza Politika sailean kontsulta egitea
- Udal Ogasunarekin zorrik ez da izango.
- Egunean izango dira Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharrak.

b) Errotuluen eta irudi korporatiboaren (besteak beste, eskuorriak, zigiluak, bisita txartelak, poltsak) kasuetan:

- Testua euskaraz bakarrik egotea.
- Ez da onartuko pertsonaren izen eta deiturak bakarrik edukitzea.

c) Web-guneen kasuan:

- Beasainen helbide fiskala.
- Web-gunea euskaraz bakarrik edota euskaraz eta beste hizkuntza batean/batzuetan edukitzea. Hainbat hizkuntzatan dagoenean Euskarazko testuaren portzentajea gainerako hizkuntzen antzekoa izango da.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa.

1. Errotuluak:

Kostuaren %50 izango da diru-laguntza, eta gehienez ere 240 euro.

2. Irudi korporatiboa:

Kostuaren %50 izango da dirulaguntza, eta gehienez ere 180 euro.

3.Web-orriak:

- a) Web-orria euskara hutsez eginez gero, kostuaren %60 izango da dirulaguntza, eta gehienez ere 470 euro.
- b) Web-orria euskaraz eta beste hizkuntza batean/batzuetan egonez gero, kostuaren %50 izango da dirulaguntza, eta gehienez ere 380 euro.

4. Eskaerak non eta noiz aurkeztu

Oinarriak argitaratzea eta eskaerak aurkezteko epea:

Oinarriak BDNSra bidaliko dira, eta GAO n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eskabideak aurkeztu ahal izango dira eta horiek aurkezteko epea 2025-12-01ean amaituko.

Modua:

Dirulaguntza eskatzen dutenek eskaera orria aurkeztu beharko dute, behar bezala beteta, jarraian adierazten diren agiri guztiekin batera. Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez ahal izanez gero: <http://www.beasain.eus/es/bulego-birtuala> edo Udalaren erregistroan, l. eranskineko ereduaren arabera.